

JOXE AZURMENDI ETA UTOPIA APAL BAT: U TEORIA APLIKATZEN

Antonio Casado da Rocha

Otto Scharmer MITeko irakasleak sorturiko U teoriak pentsamendu sistemikoa, gizarte berrikuntza eta eraldaketa biltzen ditu hainbat praktika eta printzipioen bitartez. Gaur egun sistema globalak pairatzen duen krisia kultura arazotzat ulertzen du U teoriak, eta krisia gainditzeko "sistema eragilearen" barne eraldaketa proposatzen du. Teoria hori Joxe Azurmendiren lanetatik harturiko hainbat ideiekin alderatzea da testu honen helburua, komunitate eraldaketari buruzko bere gogoetak direla medio.¹

U teoriaren arabera, zaharra eraldatzeko eta berria hautemateko lehenengo urratsa da gelditu eta entzutea. Eguneroko burrunban isilune bat utzi eta bertan entzuten denaz jabetu. Halako zerbait esan zuen Azurmendik elkarrizketa batean: "Entzuten ez badakigu, ez dago inolako hizkuntza komunik, eta baldin badago, entzun gabe ez du ezertarako balio. Zaintzen ez bada, komunitatea desegin egiten da. Askotan isiltasunaren bidez zaintzen da hobekien." (Sorreluz, 2020, 126. orr.)

ENTZUMENA, IRUDIMENA ETA ERALDAKETA

Entzutea arimako jarrera sakon bat da. Zeure ezaskitasuna apalki ezagutzea, barnea konfiantza osoz ireki –entzuten jartzea konfiantza ematea da eta irekitasuna bestelakoarekiko–, gure baitaratzen utzi munduari, hustu geure nia eta leku egin, etortzen zaigun munduarekin neure ni berria egiteko: izadia gure baitan hartzea da eta geu harengan eraldatzea. Ikustea, beharbada, gauzengana joatea bezala da; entzun, isilik irekita egon, geldi, eta gauzak gure barrura berak etor dakizkigun uztea. Uztea, konfiantza guztiarekin, munduak sorpreni gaitzan, bere soinu, ipuin, konfidentzia, dei sekretu ezezagunez. (Azurmendi, 2009, 20 orr.)

¹ Egilearen artikulu baten hainbat pasarte moldatu dira: Casado da Rocha, A. (2020). Pentsamenduaren marruskadura: etika eta praktika komunitateak aroztegi batzarrean. *Jakin* 237-238: 121-136.

Erretiratu arte, Azurmendik filosofia irakasle jardun zuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Oroitzen naiz bere eskoletan nola adierazten zuen filosofia modernoa ez dela testuekiko jolas hutsala edo autoerreferentziala, filosofoak filosofoekin mintzo beste filosofoei buruz, baizik eta gure errealitate gordinarekin zerikusia zuen zerbait. Hala esan zuen berak:

Ikasleei beti esaten diet, errealitatea bera eztabaidatu edo ukatzen duen filosofoak hanka sartzen duela. Errealitatea den bezala hartu eta irakurketak egin beharko lituzke, baina errealitatean oinarrituz. Errealitatea interpretatu baino lehen aukerak egiteko joera handia dugu, errealitatea bera ukatzeko eta desegiteko. (Azurmendi, 1997)

Noski, "errealitatea den bezala" ez da zerbait sinplea edo gardena: milaka interpretazio, milaka gatazka, milaka balio ditu barnean, kontuan hartu eta interpretatu beharrekoak. Munduaren konplexutasun horretaz jabetu gabe aukerak eta judizioak egiten hastea ez da ezer aldatzeko bide eraginkorra. Errealitateari arretarik egin gabe, etika norberaren edo bestearen fiskalizazio hutsala bihurtzen da. Baina bada eta izan da, Antzinako Greziatik, etika ulertzeko beste modu bat: arreta, autoeraketa eta hobekuntza praktika batzuk, "eskola" edo komunitate batean egiten direnak (Hadot, 2006).

Arretaren etika horrek eskatzen du zerbait joaten uztea, jadanik balio ez duten ideiak eta identitate zaharrak, oraingo uneari erreparatzeko; Azurmendiren esanetan, "mundua geure esperientziaren begiekin ikusten ikasiz, eta arazoak geure buruekin pentsatuz, ez nondibait inposatu zitzaizkigun eskemekin eta doktrinekin." (2017, 105. orr.) Aldi berean, arretaren etikak zerbait etortzen uztea eskatzen digu. Bene-benetan izan nahi dugunarekin lotura sakona egiten dugunean, bene-benetan axola zaiguna, guretzat balioa edo baliagarria zer den identifikatzen saiatzen garenean, balio horiek gauzatzen duten etorkizuna indartzen hasten gara. Nolabait esatearren, datorren munduarekin, oraindik existitzen ez denarekin, engaiatzen gara. Orduan, Azurmendiren hitzetan berriro, "geure mundu bat behar dugu geu izateko" (2017, 106. orr.).

Mundu horren bertsio asko daude, noski. Abentura guztiak ez dira berdinak; izan ere, batzuetan hobe ez sartzea. Pentsamenduak aurreikusten dituen mundu horiek, akaso, poesiaren bitartez ere adierazten dira. Ez da kasualitatea, nik uste, Azurmendiren lehenengo bi liburuak, biak 1971n argitaratuak, poesia eta entsegu liburuak izatea. Nahiz eta entseguaren bidea aukeratu, lehenengo pauso horietan poesiarena ere Azurmendik jorratu baitzuen.

Horietako liburu batean idatzita dago: "Mundu honek ez du hondamendirik merezi" (Azurmendi, 1971, 168. orr.). Hain zuzen ere, horrela bukatzen da Azurmendiren poema bilduma, "munduaren apokalipsian", baina "apokalipsia", Azurmendik ondo ezagutzen duen jatorrizko esanahian, "errebelazioa" baino ez da. Aro baten amaieraren eta beste aro baten hasieraren iragarpen profetikoa.

Gaur egun amaiera-sentimendu hori globalizatua dugu, klima aldaketa dela eta, baina ez dakit noraino dugun barneratuta. Zerbait hiltzen ari da eta zerbait berria ari da jaiotzen oraintxe bertan, gure begien aurrean, konturatu nahi ez badugu ere. "Askatasuna beti kontzientziaren askapenetik hasten delako" (Azurmendi, 2017, 105-106. orr.), lehenengo urratsa beti geure buruan gertatzen da. Bestela, Azurmendiren esanetan "orainaldian galduta, etorkizunik gabe" geratzen gara (1996, 17. orr.). Ataka horretan beharrezkoa dugu berrikurantzari ekitea: "Etorkizunari aurre egiteko, erakunde eta formula sozial berriak imajinatu beharko dira araz" (Azurmendi, 2018, 106. orr.).

Baina nola imajinatu? Gizarte berrikuntza ulertzeko, iruditzen zait onena dela ikuspegi erlazional bat hartzea, non subjektu berritzailea ez den pertsona ekintzaile batekin (jeinua, artista, norbanakoa) identifikatzen, ekosistema batekin baizik: komunitatea, prozesu berritzailea inguratzen eta azaltzen duten gizarte harreman eta konexioen multzo bat. Ekosistema hori Marina Garcés-ek "irudimenaren ekologia" gisa deskribatzen du:

Ez dago politikoa ez den irudimenik. Indibidualismoak sinestarazi digu irudimentsua izatea norberaren berezko ezaugarria dela, baita batzuek duten eta beste batzuek ez duten dohaina, grazia edo talentua ere. Baina irudimena ez da dohaina, ikasten den praktika baizik: falta dena presente egiten duen praktika da. Irudimena munduari buruzko ikuspegiaren osaera askea da, baina ez arbitrarioa. " (Garcés, 2020, 165. orr.)

Irudimena konposizio-prozesu bat da, "errealitate berri bat, osatzen duten erlazioetatik sortzen dena." (Garcés, 2020, 138. orr.). Falta dena edozein bitartekoren bidez (ez soilik ikusmenaren bidez) *presente* egiten du irudimenak.

Ikuspegi horretatik, irudimenaren ekologiak ahalbidetzen ditu konposizioa eta berrikuntza, eta askotan modu disruptiboan egiten du; izan ere, haren helburua ez da "eskakeo" gisa ulertutako programazioa edo kultura-sistema betetzea (Garcés, 2020, 76. orr.), baizik eta sistema instituzionalean eta sozialean aldaketak eta eraldaketak sustatzea, eragileen agentziaren eta sortzen ari diren egituren arteko elkarreragin konplexuaren bidez.

Konposizio hori, askotariko piezek osatzen duten sistema hori, nola abiarazi? Erantzun asko dira. Moralitatearen historia naturalean, adibidez, Juan Ignacio Pérez Iglesiasek aipatu ohi du etologiatik datorkigun azalpen naturalista bat, Tomasellotik datorkiguna: talde batek bere buruari erronka bat jartzen badio, norbanakoak bakarrik lortu ezin duen helburu batekin (animalia handi bat ehizatzea, adibidez), sortzen da "nahi partekatu" bat, eta, hortik, ehiza elkarrekin egitetik, hortik "errua", "lotsa" eta "kontzientzia" moralala bera. Nietzscheren "moralaren genealogia" ez dago hortik oso urrun. Edonola izanda ere, argi dago erantzunak ez duela ezer mistikotik; erantzun naturalista da.

Mistikoak ez diren arren, prozesu horiek badute zerbait filosofiatic. Ikuspegi materialista batean ulertuko dut hemen filosofia, Alain Badiouren hitzak hartuz, *metanoia* gisa, gogo-eraldaketa gisa:

Subjektu baten eraldaketa zuzena da, erabateko bihurketa, bizitza aldaketa osoa. Eta, horren ondorioz, erlijiotik oso gertu dago, baina soilik bitarteko razionalen bidez; maitasunetik oso gertu, baina desioaren marruskadurarik gabe; konpromiso politikotik oso gertu, baina erakunde zentralizatu baten soka motzik gabe; arte sorkuntzaren potentziatic oso gertu, baina artearen bitarteko fisikorik gabe; ezagutza zientifikotik oso gertu, baina matematikaren formalismorik gabe, eta fisikaren bitarteko enpiriko eta teknikorik gabe.

Ezagutza guztietatik gertu, baina ezagutza jakin bat izan gabe, Badiouren aburuz filosofia ekintza bat da, "inorengandik guztiengana" libre zuzentzen dena. Badiouri keinu eginez, gehituko nuke filosofia dagoela antzinako ehizatik oso gertu, Tomaselloren arabera etika eta kontzientzia sortu zituen talde ekintza; ehizatik oso gertu, baina hezur-haragizko harrapakinik gabe.

Kasu bietan ezin da bakarka egin: ez filosofia, ez ehiza. Elkarrekikotasuna da gakoa, Schillerren epigraman bezala: "Zeure burua ezagutuko duzu besteen jarduera ikusten baduzu. Besteak ezagutuko dituzu begirada zuregana itzuliz" (Zubiria, 2005, 210. orr.).

Goetheren eta erromantizismoaren espirtuaren arabera, benetako gizarte-transformaziorik ez da izango norberarengandik hasten ez bada. Barne-eraldaketa horretan, entzumena lantzea ezinbestekoa da. Ni eta nire moduan pentsatzen dutenei ez ezik, desberdin pentsatzen dutenei ere arretaz eta enpatiaz entzun behar zaie, elkarrekin eremu berria sortu nahi badugu.

Berrikuntza etorriko da praktikatik bertatik, parteek osatzen duten sistemari bere osotasunean erreparatzen diotenean, komunitatea bere buruaz kontziente denean. Gure buruari erreparatzen diogula, "jakiteko badaukagula geure pentsamendu bat" (Azurmendi, 2017, 105-106. orr.). Ez da erraza kultura lorpen hori; eta filosofia behar du, filosofia den *metanoia* hori, eraldaketa hori bilatzeko. Eta hori ez du Badiouk bakarrik proposatzen: Scharmerrek ere U teoria ulertzen du mundu zabalean modu librean hedatzen den arlo sozialeko ekintza-ikerketa gisa, arretaren egitura sakonak eta kolektiboak identifikatzeko eta aktibatzeke asmoz.

Hori guztia oso abstraktua denez, hobe adibideen bitartez azaltzea. Scharmerrek MITen garatu duen gizarte aldaketarako teknologiarren bost mugimendu orokorrak azalduko ditugu orain.

PROIEKTU BAT MAMITZEKO BOST FASE

Utopia gaur ez da "de optima rei publica" ametsa. Orientazio bat baino ez ilunpean, joera bat, "posiblearen modelo", argi bat edo ideia arautzaile bat, gida izango duguna bilaketan. Alegia Kant, Marx baino gehiago, berriro. Eta aldian-aldian proiektu konkretu batean mamitzen jakin beharko da ideia hori. (Azurmendi, 2018, 105 orr.)


Otto Scharmerrek bidaia bat proposatzen du, U letraren ezkeraldetik hasi (gure burbuilatik kanpoko munduarekin lotuz), U-ren sakonera jaitsi (gure barrualdearekin lotuz) eta U-ren eskuinaldetik igota (azaleratu nahi duen hori mundura eramanez).

Prozesuaren funtsa gure bi niak (egungo nia eta etorkizuneko Ni onena) U letraren behealdean elkar topatzea da. Bertan, elkarri entzuten eta elkarrekin aktibatzen hasiko dira. Bestela esanda: U-ren behekaldean ate bat dago, barruko atari bat eta esentziala ez den guztia erortzen edo hiltzen utzi gabe ezin dugu zeharkatu. Nia edo ego zaharrari joaten uzteko eta gure aukerarik onenari etortzen uzteko prozesu horrek lotura sotil bat ezartzen du ezagutza-iturri sakonekin.

Prozesua taldean egiten denean, ataria zeharkatzeak zerbait aldatzen du. Energia gehiagoarekin eta etorkizuneko ikuspegi partekatu batekin funtzionatzen hasten gara.

U-prozesua edo bidaia 5 etapatan bereizi dezakegu:

-
1. Elkarrekin hasi
 2. Elkarrekin sentitu
 3. Kontzientzia hartu
 4. Kristalizatu edo elkarrekin sortu
 5. Elkarrekin garatu
-



1. Elkarrekin hasi

Gure bidaiaren abiapuntua entzuteko egiten dugun geldialdia da, U prozesuaren funtsezko gaitasuna baita entzutea. Besteei entzutea. Nork bere buruari entzutea. Kolektibotik sortzen den hori entzutea.

Fase honetan erabiltzen hasiko garen tresna garrantzitsua da U teoriaren baitan: elkarri laguntzeko zirkuluak edo "kasuen klinika" dira eta bertan entzuteko gaitasuna funtsezkoa da.

Entzutea epaitu gabe behatzea da. Epaiaketaren ahotsa bertan behera uzteko gaitasuna ezinbestekoa da gure burua irekitzeko, gure aurreiritziak alboratzeko eta egoera bakoitzean presente dagoenari erantzuteko.

2. Elkarrekin sentitu

Etapa honetan sistemaren ertzetara edo periferiara bidaiatuko dugu, askotan berrikuntza disruptiboa handik sortzen delako, ez zentrotik.

Joan zaitez potentzial handieneko lekuetara eta entzun ezazu zeure barneko hiru tresnekin: buru irekia, bihotz irekia eta gogo irekia. Behatu, behatu eta behatu.

Behaketa eta irekitze prozesu hori, hain zuzen ere, sentimendu aktibo eta kolektibo bat da. Fase honetan sistema osoaren errealitatea nola espermentatzen den hobeto ulertu nahi dugu, gure lana besteen ikuspegitik ikusita. Horretarako, tresna lagungarria izango da eragile ezberdinekin elkarrizketak egitea, haien lekuan jartzeko eta haien begietatik gure ekarpena eta potentziala ikusteko.

Fase honetan sarritan erabiltzen den beste tresna bat "trabatuta" edo "stuck" deritzona da. Gizarte Presentziaren Antzerkiaren (*Social Presencing Theater*) baitako teknika horrek blokeo sistemikoak detektatzeko, esploratzeko eta desaktibatzeko balio du.

3. Kontzientzia hartu

Fase honetan, taldea kontzientzia hartzean murgiltzen da, elkarrekin sentitzeko fasean lortutako behaketa ezberdinetan oinarrituta.

Bidaiaren atal honetan, sistema kanpotik aztertu eta begiratzetik, barrutik nola sentitzen edo entzuten den ikustera pasako gara. Horrek aukera eta irudi ezberdinak azaleratuko ditu, besteekin partekatu eta kontrastatu ditzakegun abiapuntuak, adimena, bihotza eta eskuak elkartzuz.

Fase honetako oinarrizko gaitasuna norberaren iturburuarekin konektatzea da, jakintza inkontzientea azaleratu eta kontziente bihurtzen den gure baitako baretasun horretara joatea.

Fase honetan oso tresna indartsua da 4D Mapa, sistema jakin batean sortzen ari den errealitatea ikusarazteko aukera ematen baitu.

U-prozesu osoan zehar erabiltzen den beste tresna bat gure egunerokoan egiten dugun gogoetarako idazketa da. Bertan, bidaiak erakusten diguna "erein" eta erregistratu egiten dugu, eta hurrengo urratsak planifikatzen ditugu adimena, bihotza eta borondatea irekitzeko eta osatzeko prozesu honetan.

U letraren ezkerraldetik jaistean, pentsamenduaren, sentimenduen eta borondatearen erresistentziara ireki eta horretan trebatzen da taldea. Eta, jarraian ikusiko dugun bezala, eskuinaldetik gora igotzean, aplikazio praktikoan eta ekintzan oinarritutako ikasketaren testuingurura integratu beharko ditu.

4. Kristalizatu edo elkarrekin sortu

Aldaketa eragile talde txiki bat helburu partekatu batekin konprometitzen denean, asmoaren indarrak pertsonak, aukerak eta baliabideak erakartzen dituen energia eremu bat sortzen du.

Taldeko nukleoak edo muinak, eta taldeari eusten dion edukiontziak, lotune gisa funtzionatzen dute, osotasuna azaleratu dadin. Nola? Ekintzaren bidez.

Prototipoek ideiak edo kontzeptuak ekintza zehatz eta esperimental bihurtzen dituzte, aurreko faseetan pilatutako ezagutza egikaritzuz eta aplikatuz.

Taldeak modu praktikoan prototipo horiek diseinatu eta garatu eta interes-taldearen erreakzioak eragiten dituzten ekintzak gauzatzen ditu.

Hauek dira etapa honetako funtsezko ideia batzuk: etorkizuna eginez esploratzen ikastea; inguruneak eskaintzen dizun feedbacka entzutea; sortu nahi duen horren etorkizuneko mikrokosmos bizia garatzea; errepikatzea, errepikatzea eta errepikatzea.

Fase honetako tresna baliotsua dugu 3D Mapa. Hainbat objektu eta grafiko erabilita, mapa edo modelo bat egiten da, proiektua ikusteko aukera ematen duen aurkezpen bisual dinamiko bat. Horrek aukera ematen die interes-taldeei elkarrekintzan aritzeko, feedback eta berrikuspen ziklo azkarrak ahalbidetuz.

5. Elkarrekin garatu

Fase honetan, prototipoak eta berrikuntza integratuko ditugu, osotasunetik ikustea eta jardutea erraztuko duen ekosistema batean.

Otto Scharmerrek biolin jotzaile baten pasadizoa kontatu ohi du. Chartresko katedralean biolina jotzen zuenean, espazio osoa erabili behar zuela esaten omen zuen, "makrobiolina" deitzen zion hori, katedralari eta musikari, biei merezi zutena eskaintzeko. Era berean, U teoriar maila makro horretan jarduten saiatzen gara, eskala handiago batean elkarrekin sentitzeko eta elkarrekin sortzeko beharrezkoak diren aktoreak inplikatzuz.

Fase honetan taldeak bilerak egiten jarraitzen du eta prototipoa iterazio askoren bidez garatzen du. Eboluzionatu ahala, prototipoak aurreko formen ezaugarri onenak mantendu eta gainerakoak aldatzen ditu.

Tentagarria da "plana egin eta ekin", planifikatu eta exekutatzeko modura pasatzea. Hala ere, U teoriar, garrantzitsuena iturburutik jardutea da. Beraz, prototipoa garatzen jarraituko dugu, baina "jarduteko dugun iturburua aldatzeko" gaitasuna babestuz.

Prototipoen azken fase honetan, talde gisa hazten gara, eta munduan zer eta nola aldatu nahi dugun argitzen dugu; beraz, zure istorioa kontatzeko une egokia izan daiteke, ekosistema zabalago batera iritsi dadin.

Testuak, irudiak, zuzeneko emanaldiak, ikus-entzunezkoak bezalako euskarriak erabiliz, elkarrekin narratiba bat sortzea tresna indartsua izan daiteke taldeak bere burua argiago senti eta ikus dezan.

BIBLIOGRAFIA

Azurmendi, J. (1971) *Hitz berdeak*. Oñati, EFA.

Azurmendi, J. (1996). *La idea cooperativa: del servicio a la comunidad a su nueva creación*. Aretxabaleta, Gizabidea Fundazioa.

- Azurmendi, J. (1997) Elkarrizketa. *Elkarri* 34: 16-25.
- Azurmendi, J. (2009). *Azken egunak Gandiagarekin*. Donostia, Elkar.
- Azurmendi, J. (2017). *Hizkuntza, nazioa, estatua*. Donostia, Elkar.
- Azurmendi, J. (2018). Historia ez da ikusten, asmatu egiten da. *Beltzak juduak eta beste euskaldun batzuk*, 75-106. Donostia, Elkar.
- Badiou, A. (d.g.). La filosofía como repetición creativa. *The Symptom*. www.lacan.com/badiou18spa.html.
- Garcés, M. (2020). *Escuela de aprendices*. Bartzelona, Galaxia Gutenberg.
- Hadot, P. (2006). *Ejercicios espirituales y filosofía antigua*. Madril, Siruela.
- Scharmer, C. O. (2018). *The Essentials of Theory U*. Oakland, Berrett-Koehler Publishers.
- Sorreluz, A. (2020). Entrevista a Joxe Azurmendi. *Dilemata* 31: 125-131.
- Tomasello, M. (2018). Précis of a natural history of human morality. *Philosophical Psychology* 31(5): 661-668.
- Zubiria, M. (2005). Algunos epigramas de Goethe y de Schiller. *Revista de Literaturas Modernas* 35: 197-212.